

dean, Astelena pilota lekuan, oso partidu ederra ikusi aal izan genuen”. Ez al da naikoa, “Ikusi genuen” esatearekin. Besterik da: “Bidean elurra eta, iristeko eziñean, azkenean iritxi eta “partidua ikusi aal izan genuen” Euskal sena bear leenengoz eta azken batean, esaldiak ondo bereizteko. Gramatika ondo menderatuz, ainbat obe. Eta aaztu gabe ere esaldia au: “Dakienari galdezka, errez kentzen da kezka”. Nik “aal” sartzen duten tokian, askotan “aukera” izena erabilliko nuke.” Aala” besterik baita da.

• **Aalkeraren aditz jokoa.** Oso gutxitan entzuten ditugu onakoak: “Naiteke, dezaket, ninteke, lezake, e.a.” Eta batzuk, “Posible” itza erabillita zearo jaten dute aditz joko ori.

Gera bedi ortxe esandakoa azken atal auetan, kontu izan dadin, erabiltzea ez dela naikoa. Aalik eta obekien, era zuzenean eta bere osotasunean euskera erabiltzen saia bearra daukagu, nire uste apalez.

– BIZKAI. Ondo diñozu, GIPUZ, “Dakienari galdezka errez kentzen da kezka”. Emen ostera errezago izan nonbait beste ori: “Zenbat buru ainbat aburu”.

Ez ete zan orrelako zerbait gertatu 1968an, euskera batuaren inguruan? Azken batean maixukeria?..... Denpora izaten ei da “egiaren auzitegi gorena”. Nik gaur artekoari begiratzen ba deusot, gureak, bizkaitarronak, egin dau.....

Onelaxe amaitu da itzaldia. Ortik aurrera bakoitzak atera bitza bere kontuak. Aal izan dudan neurrian, bakoitzari entzundakoa idazten saiatu naiz. Au da: Bizkaiera, gipuzkera eta batua izenekoa. Uts egiteren bat balego, barka ezaidazu, irakurle.

Eta bukatzeko niri dagokidanez auxe:

**Jaien egitarauak, Bizkaian,
Batuaz, batuaz? Or da gipuzkera.
Ume batek ama or,
Nola bertan beera!
Bizkaian bizkaiera,
Ez al da euskera?**

Joxemari Murua

JAKITURIA

Giza seme argiak
te emakume askarrak
sortzen dabe itza,
itzaren bidez dator
jakituri argia
gizarte maitera.

Lurrean agertu da
izadia argitzeko
itz zoragarria,
sorrera aipagarria
mundua onduteko
datorren argia.

Andre-gizon artean
salbatu bear dabe
bizia lurrean,
jakintzaz zuzenduta
bizitz arau guztiak
zorion bidean.

IKASLEA

Aintzagarria zara
gizarteko itz ori
askoren pozgarri,
zuk edertuten dozu
gizadi samindua,
beti, arrigarri.

Gora buru argia,...
zure menpean dago
gizarte maitia,
gogo onagaz artu
ta zabaldu jakintza
estimagarria.

Gisadia zain dago
aurrera egin nairik
bizitza bidean,
betor jakituri
ta zabaldu ateak
bizitza aurrean.

PAULIN